

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea Bellojinen lurzati bat urbanizatzeko sinatu beharreko hitzarmena

Udalbatzak 2023ko martxoaren 31n erabakia hartu zuen, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 7. xedapen gehigarrian xedatzen duena betetzeko; horiek horrela, honen bidez, hirigintza hitzarmenaren testu osoa argitaratzen da, zeina ondoren txertatuko baita, herritarrak jakinaren gainean egon daitezzen eta hogeit hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

Hitzarmenaren testu osoa:

“Gaubea, 2023ko .....ren .....(a).

Bildu dira

Alde batetik, Gorka Salazar Senso jauna, Gaubeako Udaleko alkate-lehendakaria, ekintza hau burutzeko berariaz ahaldunduta baitago, Udalbatzak 2021eko martxoaren 13an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez.

Beste aldetik, M. G. O., adinduna (NAN: \*\*\*\* ; helbidea: \*\*\*), Bellojin herriko 11 poligonoko 267 zenbakiko lurzatiaren jabe moduan diharduelarik.

Nire aurrean, udaleko idazkaria den O. P. C. andrea, egintzaren fede ematen duena.

Alderdi guztiek hitzarmen hau izenpetzeko lege gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri eta, horretarako, honako hau

Adierazten dute

Lehenengoa. M. G. O. andrea Bellojin herriko 11 poligonoko 267 zenbakiko lurzatiaren jabea da. Lurzati hori, indarrean dagoen plan orokorrean, bizitegitarako hiri lurzoru finkatu gabe gisa kalifikatuta dago (AI-R01 jardun integratua eta UE01 egikaritze unitatea), zeinak nahitaezko lagapen eta urbanizazio karga jakin batzuk bete behar baititu.

Bigarrena. Aipatutako lurzatiaren perimetroa itxi nahi da, lagapenak partzialki betez eta lurzatiari eragiten dioten kargak betez.

Hirugarrena. Gaur egun, ez dago aurreikusita egikaritze unitate hori garatzea.

Horregatik,

Erabakitzen dute

Lehenengoa. Gaubeako Udalak, Bellojingo AI-01-UE01en egungo hirigintza-egoera kontuan hartuta, obra lizentzia emango du lurzatiaren perimetroa ixteko, baina ez ditu eskatuko M. G. O.ren lurzatiari dagozkion nahitaezko lagapen eta urbanizazio karga guztiak.

Zehazki, M. G. O.k lurzati itxiko du, aurkeztutako eta hitzarmen honi eranskin moduan atxikitako planoaren arabera, eta, ondorioz, gorriz grafiatutako bi eremuak udalaren jabetzan geratuko dira, eta berdez grafiatutakoa M. G. O.ren jabetzan.

Bigarrena. M. G. O. andreak eta Gaubeako Udalak adostu dute egindako lagapenak formalizatzea eta eskritura publikoan jasotzea UE01 unitatea kudeatzeko eta urbanizatzeko prozesua hasten den unean edo udalak M. G. O. andreaki eskatzen dion unean egingo dela.

Hirugarrena. M. G. O. andreak hitzeman du Bellojin herriko 11 poligonoko 267 lurzatiari dagozkion gainerako nahitaezko lagapenak eta urbanizazio kargak Gaubeako Udalak eskatzen dizkion edozein unetan egingo dituela, baldin eta UE01 kudeatu eta urbanizatzeko prozesua hasten bada.

Laugarrena. M. G. O. andreak ordainduko ditu hirigintza lanak eta nahitaezko lagapenak, dagokion zatian eta plan orokorrak zehazten duenaren arabera.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko eta hala jasota gera dadin, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte goian adierazitako tokian eta egunean.”

Gaubea, 2023ko maiatzaren 16a

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA SALAZAR SENSO**